DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 -2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2021EKO UDAN, EKAINAREN 1ETIK IRAILAREN 15ERA, HONDARTZETAKO SARBIDEAK KONTROLATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA EL CONTROL DE ACCESOS A LAS PLAYAS TEMPORADA DE VERANO 2021, DEL 1 DE JUNIO AL 15 DE SEPTIEMBRE.**
1.- KONTRATUAREN XEDEA Agiri honen xedea da baldintza tekniko batzuk ezartzea, hiriko hondartzetako sarbideak kontrolatzeko zerbitzu kontratuaren oinarri gisa balio dezaten, COVID-19aren hedapena kontrolatzeko ezarritako edukierak betearazte aldera.	**1.- OBJETO DEL CONTRATO** Es objeto del presente Pliego es establecer las condiciones técnicas que servirán de base para contratar la prestación del "Servicio de control de accesos a las playas de la ciudad", para hacer cumplir los aforos impuestos para controlar la expansión del COVID-19.
2.- JARDUKETA EREMUA: Zerbitzua, batez ere, Kontxako hondartzan emango da, hala pasealekuaren kanpoaldeko sarbideetan nola hareatzan. Hiru sarrera bakarrik jarriko dira Kontxako hondartzan: Cervantes plazaren pareko arrapalan, ordularietako biribilgunean eta Eguzki klubaren aldean. - Cervantes plazaren ondoko arrapala luzetara banatuko da, jaisteko bide bat eta igotzeko beste bat egon daitezen. - Ordularien parean dauden bi sarbideetako bat hondartzara sartzeko izango da, eta bestea hondartzatik irteteko. - Eguzki klubaren parean dauden bi sarreretan ere, aurreko kasuan bezala egingo da: bat hondartzara sartzeko erabiliko da, eta bestea hondartzatik irteteko. Era berean, Zurriola eta Ondarretako hondartzak bandera eta kartelen bidez seinaleztatuko dira.	**2.- ÁMBITO DE ACTUACIÓN**: El Servicio se prestará principalmente en la Playa de la Concha, en sus accesos por la parte exterior en el paseo y en el arenal. En la playa de la Concha se habilitarán exclusivamente 3 entradas: Rampa frente Plaza Cervantes, Rotonda Relojes y Zona club Eguzki. - La rampa Junto a la Plaza de Cervantes se dividirá de forma longitudinal de tal forma que exista un sentido de bajada y otro de subida. - Los dos accesos que se encuentran a la altura de los Relojes, uno será de entrada y otro de salida a la playa. - Los dos accesos a la altura del club Eguzki, igual que en el caso anterior, uno será de entrada y otro de salida a la playa. Así mismo se actuará sobre la señalización mediante la colocación de banderas y carteles en las playas de la Zurriola y Ondarreta.
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA Kontratuak, 2021eko ekainaren 1etik (edo, kontratua geroago formalizatzen bada, formalizatzen denetik) irailaren 15era bitartean iraungo du.	**3.- DURACIÓN DEL CONTRATO** La duración del contrato será del 1 de junio de 2021 (o, en caso de que el contrato se formalice más tarde, desde la formalización) y finalizará el 15 de septiembre de 2021.
4.- KONTRATUAREN XEDE DEN ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA Eginkizunak honako hauek izango dira:	**4.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO OBJETO DE CONTRATO** Las funciones a realizar serán las siguientes:

Donostiako Udalo
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Kontxako hondartzan: - Hiru sarbideetan egotea astelehenetik igandera, 09:00etatik 21:00etara. - Hondartzako sarrerak ixteko materiala jartzea eta kentzea, beharren arabera. - Hondartzan seinaleak jartzea, aldatzea eta jasotzea, hondartzaren beharren arabera, egoerak hala eskatzen duenean. Sarrerako eta irteerako erreiak zedarritzea. - Lanaldia amaitzean, ixteko eta seinaleztatzeko material guztia biltzea. - Erabiltzaileei jakinaraztea, Udalak emandako jarraibideei eta informazioari jarraituz, hondartzarako sarbidearen egoera eta, beharrezkoa izanez gero, hondartza ixteko beharra. Herritarrekiko komunikazioak lehenbizi euskaraz egingo dira. - Udal zerbitzuei izan diren gertakarien berri ematea. - Udaltzaingoarekin komunikatzea, haren zerbitzuak behar izanez gero. - Hondartzaren edukieraren jarraipena egitea, App-aren eta Udaltzaingoaren edo udal arduradunen bidez. Zurriolako hondartza Dagoeneko gaituta dagoen mastan banderak jartzea eta Udalaren jarraibideen arabera altxatu edo jaistea . Ondarretako hondartza Dagoeneko gaituta dagoen mastan banderak jartzea eta Udalaren jarraibideen arabera altxatu edo jeistea. Hesiak lekuz aldatuko dituzte, Udaltzaingoaren esku uzteko.	En la playa de la Concha: - Mantener la presencia en los tres accesos de lunes a domingo, en horario de 9:00 a 21:00. - Proceder a la colocación y retirada del material de cierre en los accesos, en función de la necesidad de la playa. - Proceder a la colocación, modificación y recogida de la señalización del aforo en la playa en función de las indicaciones del Ayuntamiento, incluida la izada y arriada de las banderas cada vez que sea necesario. Delimitación de los carriles de entrada y salida. - Proceder al acopio al final de la jornada de todo el material tanto de cierre como de señalización. - Comunicar a los usuarios, siguiendo las instrucciones e información que suministrará el Ayuntamiento el estado del acceso a la playa y la necesidad de cerrar la playa en el caso de que sea necesario. Las comunicaciones con la ciudadanía se harán primero en euskera. - Informar a los Servicios Municipales de los sucesos que pudiesen darse. - Comunicarse con la Guardia Municipal en caso de precisar de sus servicios. -Seguimiento del estado del aforo de la playa mediante app y Guardia Municipal o responsables Municipales. Playa de la Zurriola Colocación en el mástil ya habilitado las banderas y proceder a izarlas o arriarlas en función de las indicaciones del Ayuntamiento. Playa de Ondarreta Colocación en el mástil ya habilitado las banderas y proceder a izarlas o arriarlas en función de las indicaciones del Ayuntamiento. También realizaran el traslado de las vallas para dejarlas a disposición de la Guardia Municipal.
5. TXOSTENAK Enpresa esleipendunak txosten hauek egin beharko ditu: - Berehalako txostena: Ohikoa ez den gorabeheraren bat gertatzen den bakoitzean emango da. Langileek COVI-19- arekin zerikusia duen kutsatze edo arau-hausteren bat ekar dezakeen egoeraren bat ikusten dutenean edo horren berri ematen zaienean igorriko da, prebentzio arauak betetzearen aurrean erabiltzaileen jarrera negatiboak edo saihestezinak izan diren eta covid 19aren foko izan daitezkeen egoeren berri izatea. - Asteroko txostena: Astean zehar gertatutakoari	**5. INFORMES** La empresa adjudicataria deberá emitir los siguientes informes: - Informe inmediato: Será emitido siempre que ocurra un incidente no rutinario. Será emitido cuando operarios detecten o sean informados sobre alguna situación que pueda conllevar algún tipo de contagio o infracción en referencia al COVID-19, como actitudes negativas de los usuarios a cumplir las normas de prevención o saber de situaciones que han sido inevitables y pueden ser un foco. - Informe semanal: Será emitido como información

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

buruzko informazioa emanen da, zerbitzuaren bilakaera aztertzeko ez ezik, beharrezkoa izanez gero prozeduraren bat zuzentzeko beharra ebaluatzeko ere.	de lo ocurrido durante la semana de tal forma que sirva para además de analizar la evolución del servicio también evaluar la necesidad de corregir algún procedimiento si fuese necesario.
6.- GIZA BALIABIDEAK Enpresa esleipendunak, gutxienez, honako baliabide pertsonal hauekin eman beharko du zerbitzua: - Hiru langile, 09:00etatik 21:00etara, astelehenetik igandera. Hiru langile horietako bat zerbitzuaren arduradun egingo da hondartzetako sarreran. - Enpresak udal zerbitzuekin hitz egiteko solaskide bat izendatuko du, eta pertsona hori une oro lokalizatzeko moduan egongo da, lan ordutegian.	**6.- MEDIOS HUMANOS** La empresa adjudicataria deberá prestar el servicio, como mínimo, con los siguientes medios personales: - 3 Operarios en horario 9:00 a 21:00 horas de lunes a domingo. Uno de estos tres operarios hará de responsable del Servicio en la entrada de la Playas. - Además, la empresa deberá designar una persona interlocutora con los Servicios Municipales que se encontrará permanentemente localizable en horario de trabajo.
7.- BALIABIDE MATERIALAK Esleipendunak jarriko ditu hondartzako sarrerak kontrolatzeko erabili beharreko itxiturak, seinaleak eta baliabide osagarriak –jarraian azaltzen direnak–, non eta Udalak ez duen berariaz esaten horietako batzuk berak jarriko dituela. Hornikuntzaren kostua esleipendunaren kontura izango da, eta horren barruan sartuko da kolokatzeko, desmuntatzeko eta lekualdatzeko lanen kostua, kontratuak irauten duen bitartean. Seinaleek eta kartelek idatzizko testua badute, euskarari emanen zaio lehentasuna.	**7.- MEDIOS MATERIALES** El adjudicatario suministrará los medios de cierre, señalización y accesorios necesarios a emplear en el control de accesos a la playa, que se expone a continuación, salvo los que expresamente se dice que los aporta el Ayuntamiento. El coste de su suministro será a cuenta del adjudicatario durante la duración del contrato, estando en este coste incluido el de los trabajos de colocación, desmontaje y traslado. En caso de que la señalización y cartelería disponga de texto escrito, se dará prioridad al euskera.
KONTXA HONDARTZA Udalak masta bat jarriko du Cervantes plazako eremuan dagoena, eta banderak ere bai: 6 ale 360x225 cm-koak (2 gorri, 2 hori, 2 berde) eta 3 ale 480x300 cm-koak (1 gorria, 1 horia, 1 berdea). Esleipendunak banderak jasotzeko mastaren mekanizazioa konprobatu beharko du eta, beharrezkoa izanez gero, berriz egin. Esleipendunak material hau aurkeztu beharko du: IXTEKO ELEMENTUAK - 16 bideratze zutoin, zinta barneragarria dutenak, lehenengo arrapalan sartzeko eta irteteko erreiak banatzeko. - Oinezkoentzako 19 hesi baxu, 200x100 cm-koak,	PLAYA DE LA CONCHA El Ayuntamiento aportará un mástil que se encuentra en la zona de la la plaza de Cervantes así como las banderas: 6 unidades de 360x225 cm (2 rojas, 2 amarillas, 2 verdes) y 3 unidades de 480x300 cm (1 roja, 1 amarilla, 1 verde). El adjudicatario deberá proceder a comprobar el mecanizado del mástil para el izado de las banderas y volver a realizarlo en caso de ser necesario. El adjudicatario aportará el siguiente material. ELEMENTOS DE CERRAMIENTO - 16 postes de direccionamiento con cinta retráctil para la división de carriles entrada y salida en 1ª rampa - 19 vallas peatonales bajas de medidas 200x100

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

eremuak banatzeko.	cm, para división de áreas
- 1 plataforma osagarri, materialak egunero mugitzeko.	- 1 plataforma auxiliar para traslado diario de materiales.
BANDEREN EUSKARRIAK	SOPORTES DE BANDERAS
- 2 masta, 5,30 m-ko garaierakoak, oinarri eta kontrapisu eta guzti.	- 2 mástiles de 5,30 m de altura con su correspondiente base y contrapesado. Para colocar uno en la entrada de los relojes y otro en el Eguzki.
BATZUK	VARIOS
- 6 giltzarrapo, 6 kate 2,5 m-koak, orotariko giltzak.	- 6 Candados, 6 cadenas de 2,5m , llaves amaestradas.
- Finkatze elementuak (4 brida pakete, balizatzeko zinten 3 biribilki, eta abar).	- Elementos de fijación (4 paquetes de bridas, 3 rollos de cinta de balizamiento, etc.)
- COVID-19 NBE materiala (maskarak, eskularruak, hidrogela, eta abar).	- Material EPI COVID-19 (mascarillas, guantes, hidrogel, etc.)
- 3 terminal mugikor.	- 3 terminales móviles.
- 3 eguzkitako, ehun txuri-urdinekoak, sarbideetan dauden langileak eguzkitik babesteko.	- 3 Sombrillas con textiles de color azul y blanco para protección solar de los operarios en los puntos de acceso.
- 3 aulki zuri tolesgarri.	- 3 sillas plegables blancas
KARTELAK	CARTELERÍA
- 12 errotulu, "DEBEKATUTA OINEZKOENTZAT" ETA "NORANZKOA" jartzen dutenak. 60X50 cm.	- 12 Rótulos indicativos de PROHIBIDO PEATONES Y SENTIDO DE DIRECCIÓN. 60X50 cm.
<u>ZURRIOLA HONDARTZA</u> (esleipendunak jarriko ditu)	<u>PLAYA DE LA ZURRIOLA</u> (a aportar por el adjudicatario)
BANDERAK	BANDERAS
-3 unitate, 480x300 cm-koak (1 gorri, 1 hori, 1 berde)	-3 Unidades de medidas 480x300 cm (1 roja, 1 amarilla, 1 verde)
- 9 m-ko garaiera duen masta baten mekanizazioa, Udalaren jabetzakoa, banderak jartzeko.	- Mecanizado de un mástil de 9 m de altura propiedad del Ayuntamiento para colocación de banderas.
- Masta Udalaren finkoa da eta Kursaaletik hurbilen dagoen erlojuaren ondoan dago.	- El Mástil es fijo del Ayuntamiento y se encuentra junto al reloj más cercano al Kursaal.
<u>ONDARRETA HONDARTZA</u> (esleipendunak jarriko ditu)	<u>PLAYA DE ONDARRETA</u> (a aportar por el adjudicatario)
BANDERAK	BANDERAS
-3 unitate, 480x300 cm-koak (1 gorri, 1 hori, 1 berde)	-3 Unidades de medidas 480x300 cm (1 roja, 1 amarilla, 1 verde)

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- 9 m-ko garaiera duen masta baten mekanizazioa, Udalaren jabetzakoa, banderak jartzeko. - Masta Udalaren finkoa da eta petrilaren ondoko pasealekuaren erdian dago. Horiez gain, **2,5 metroko luzera duten 30 hesi izan beharko ditu erabiltzeko moduan**, elementu osagarri gisa jarri beharra izanez gero ere. Esleipen prezioaren barruan sartuko dira horien hornikuntza eta lekualdaketak, hala eskatzen bazaio. Langileek uniformea eraman beharko dute, Udalaren aginduei jarraituz. Enpresak jarriko ditu uniforme horiek, bai eta langileek beren eginkizunak betetzeko behar duten ekipamendu guztia ere: NBEak, tresnak, behar izanez gero, eta haiek eta erabiltzaileak COVID-19az ez kutsatzeko behar diren babes ekipamenduak.	- Mecanizado de un mástil de 9 m de altura propiedad del Ayuntamiento para colocación de banderas. - El Mástil es fijo del Ayuntamiento y se encuentra en la mitad del paseo junto al petril. Aparte de estos deberá tener **en disponibilidad 30 unidades de vallas de 2,5 metros de longitud**, por si en caso necesario se tuviesen que colocar como elemento adicional, entrará dentro del precio de adjudicación el suministro y sus traslados, siempre que sean requeridos. Los operarios deberán ir uniformados siguiendo las indicaciones del Ayuntamiento, siendo la empresa la que suministrará dichos uniformes. Así mismo suministrará a sus empleados todo el equipamiento necesario para desempeñar su función: EPI's, herramientas si fuesen necesarias y equipos de protección necesarios para evitar el contagio por el COVID- 19, entre ellos y los usuarios.
8. <u>ZERBITZUAREN ERANTZUKIZUNAK</u> 6. puntuan adierazten den bezala, enpresa esleipendunak Udal Zerbitzuekiko solaskide bat izendatuko du. Pertsona hori etengabe lokalizatuko da lanorduetan, eta haren funtzioa izango da langileak kudeatzea eta Udalaren eguneroko kudeaketan ordezkari izatea. Enpresa esleipendunak izango du COVID-19aren prebentzioarekin lotutako ekintza guztien erantzukizuna, betiere haren eginkizunen, instalazioen eta langileen zuzeneko xede badira. Udalak, Osasun Zuzendaritzaren bidez, unean-unean ematen dizkion jarraibideak jarraituko ditu. Ondotik adierazten dena bete beharko du gutxienez: •Edozein ekintza banaka egiten saiatzea, ahal den guztietan. • Maskara behar bezala erabiltzea, ahal den guztietan. • Eskuak ahalik eta gehien garbitzeko jarduerak lehenestea, produktu desinfektatzaileak maiz erabiliz. • Beharrezko prebentzio materiala, arropa edo osagarri indibidual eta transferiezinak erabiltzea, eta ahal den gehien saihestea mota horretako edozein elementu partekatzea. • Arreta berezia jartzea denek erabiltzeko den materiala ahalik eta gehien desinfektatzeari, eta	**8. <u>RESPONSABILIDADES DEL SERVICIO</u>** Tal como se indica el el punto 6 la empresa adjudicataria designará una persona interlocutora con los Servicios Municipales que se encontrará permanentemente localizable en horario de trabajo cuya función será la de gestionar el personal actuante y servir de representante en la gestión diaria ante el Ayuntamiento. La empresa adjudicataria se responsabilizará de todas las acciones concernientes a la prevención del COVID-19 que sean objeto directo de sus funciones, de sus instalaciones y de su personal trabajador. Sin perjuicio del las instrucciones que en cada momento le dé el Ayuntamiento a través de la Dirección de sanidad. Deberá cumplir como mínimo lo expuesto a continuación: • Intentar realizar cualquier acción de forma individual, siempre que sea posible. • Usar correctamente la mascarilla, siempre que sea posible. • Priorizar actuaciones de máxima higiene de manos a través del uso frecuente de productos desinfectantes. • Usar el material de prevención necesario, indumentaria o complementos de carácter individual y no transferible, evitando al máximo compartir cualquier elemento de este tipo. • Prestar especial atención a la máxima desinfección del material de uso compartido,

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

estrategiak bilatzea era horretako materiala ahal den gutxiena izan dadin. Banakako jarduera da ur inguruneetarako modurik seguruena. Bainatzeko eremuetara gelditu gabe sartu behar da, hau da, ez da gelditu behar, ez lehenago ez geroago, espazio horiekin muga egiten duten eremuetan, eta, ahal den guztietan, pertsonen artean 2 metroko distantzia utzi behar da, baita uretan ere, kutsatzea saihesteko.	insistiendo en buscar estrategias para que este sea el menos posible. La realización de actividad individual es la forma más segura para entornos acuáticos accediendo a las zonas de baño sin detenerse, ni antes ni después en las zonas colindantes a estos espacios y, manteniendo, siempre que sea posible, una distancia interpersonal de 2 metros, incluso en el medio acuático para evitar el contagio.
• Profesionalen arteko harremanak segurtasun distantzia gordez izatea. Zerbitzuaren beharrak direla eta segurtasun distantzia hautsi behar bada, profesionalek maskara kirurgiko bat eraman beharko dute.	• La relación entre profesionales se debe realizar con el mantenimiento de la distancia de seguridad. Si por necesidades del servicio se debe romper la distancia de seguridad, los profesionales deberán llevar una mascarilla quirúrgica.
• Hondartzen erabiltzaileari hurbiltzeko eta haiekin harremanetan jartzeko, FFP2 maskara gutxienez	• Para acercarse y comunicarse con los usuarios de la playas es obligatorio llevar puesto mínimo una mascarilla FFP2.
• Erabiltzaileekiko komunikazio oro gutxienez 2 metroko distantzia utziz egitea, egoerak ahalbidetzen badu.	• Toda comunicación con los usuarios se realizará respetando una distancia de al menos 2 metros de distancia si la situación lo permite.
• Txanda eta lanaldi bakoitzaren amaieran, laneko material guztia garbitzea eta desinfektatzea, produktu hidroalkoholikoekin edo zientifikoki testatutako desinfekzio materialekin, hurrengo txandakoek segurtasun bermearekin lan egin ahal izan dezaten.	• Al final de cada turno y jornada laboral se debe limpiar y desinfectar, con productos hidroalcohólicos o con materiales de desinfección testados científicamente, todo el material de trabajo para que el relevo pueda trabajar con garantía de seguridad.
Enpresa esleipenduna arduratuko da bere jabetzako nahiz Udalaren jabetzako material guztia behar bezala erabiltzeaz. Gainera, funtzionamendu arauak betetzen direla zainduko du, bai eta zerbitzuko langileen jarduna eta portaera zentzuduna izatea ere.	La empresa adjudicataria se responsabilizará del buen uso de todo el material tanto de su propiedad como de propiedad del Ayuntamiento. Además, velará por el cumplimiento de las normas de funcionamiento, así como de la actuación y comportamiento razonable del personal de servicio.
Egin beharreko ikuskapenak bermatzeko, zerbitzuko langileek beren nortasuna egiaztatzen duen txartel bat izango dute, eta nahitaez identifikatu beharko dute, udal langile arduradunek hala eskatzen dietenean.	Para garantizar las inspecciones que hubiera lugar, el personal de servicio dispondrá de una tarjeta acreditativa de su identidad, y estará obligado a identificarse ante requerimiento del personal municipal responsable.

14 de abril de 2021

Hiri Zerbitzuen burua

Carlos Sánchez